

TOLOSALDEKO EUSKO ALKARTASUNA

TOLOS- ALEA

INFORMAZIO POLITIKOA JARRAITZEKO ALEA



3. ALEA
APIRILA 2021

AGURRA

Maitane Gonzalez

Eusko Alkartasunako Tolosako Koordinatzailea

Jada urtebete pasa da Covid-19ak eragindako pandemiak gure bizitzan eragin zuzena izaten ari dela. Garai gogorak bizitzen ari gara. Zoritzarrez, denok jasaten gabiltza neurri handiagoan edo txikiagoan horrek dakartzan ondorioak.

Osasuna eta zaintza ezinbesteko bihurtu dira gure egunerokotasunean eta norberak bere burua zaintzen arduratzean gain, ingurukoak zaintzea ere tokatzen zaigu. Erantzukizunez jardun behar dugu ezarritako osasun neurriak betez; hori baita pandemia honi aurre egiteko bide bakarra.



EH Bildu 10. urte baino ez

Pello Urizar

Unionistek egoera kontrolatua zeukatela ikusita 2009an Eusko Alkartasunatik, ezinbestekoa ikusten genuen metaketa edo biltze lan bat egitea, hausnarketa eta lanaren ondorioz 2 urte geroago Bildu eratzea lortu genuen. Etorrizuneko EH Bildu konplexurik gabeko eragile

politiko bezela ikusten dut, gobernatuko duen eragile politikoa, maila guztietan gobernatu dezakeen eragile politikoa gainera, politika egiteko beste modu bat erakusten duena. Euskal Herriak behar duen aldaketa EH Bilduren eskutik etorriko da.



IRITZIA

Memoria eta aitortza osoak eta guztiontzat

Eba Blanco.

Eusko Alkartasunako Idazkari Nagusia



“Euskal gizartea gizarte gaixoa da”. Zenbatetan entzun dugun esaldi hau, eta zein erraturik zebiltzan berau ahotan ibiltzen zutenak. Zerbait bada euskal gizartea, herri honetan gertatu denaren oso kontziente da; ez azken 100 urteotako gertakari latzak ahazten ez dituen, memoria duin eta osoa gorde eta aldarrikatzen dituen, biktima guztiei zor zaien erreparazioa

aldarrikatzen duena, eta noski, gizarte eta norbanako gisa dagozkion eskubide guztien aitortza borrokatzen dituen gizarte sanoa da gurea.

Gurea gizarte langilea da, borrokalaria eta ausarta. Emakume eta gizon askok bizitza eman dute guztion eskubide eta askatasunaren defentsan. Eta baita ere burugogorra da euskal gizartea; bakea garesti ordaintzen dela jakin arren, berau bilatu eta aurkitu ondoren, gurean ezartzen tematuta gaude. Euskal gizarte zibilak biktima guztiei eman die hitza eta konfiantza. Euskal gizarteak ez du ahazten, eskubideen urraketa oro, edota errepresio zein tortura kasuak aitortzera arte egia eskatzen jarraitu behar dugulako. Eta noski, bere odolean darama ETaren krimenen oinazea.

Eta horrekin guztiarekin ere aurrera doa, bakegintzan eta elkarbizitzan bidegile. Artean, alderdi politiko gehienak erretrobisoreari begira bizi dira alderdikoi, Euskal Herriak pairatutako gatazka urteak patrimonializatu nahian, edo.

Bagara benetako bakea, memoria osoa eta biktima guztientzako aitortza lortzeko erakunde, mugimendu, fundazio, alderdi, familia eta antolakunde ezberdinekin urte luzez gabiltzanak. Eta honetan dihardugun bitartean, PNV eta PSEk alderdikaririk Herri interesetik baino gehiago duen mozioa aurkeztu dute. Fernando Buesa fundazioa- beste batzuen artean- izanik mozioaren eragile, uste dugu laguntza baino oztopo dela Euskal Herriko benetako elkarbizitzarako. Eta hau diogu Jaurilaritzak daraman txertaketa kudeaketa kaltegarritik fokoa atera, eta biktima batzuegan soilik jartzen duelako foko hori, beste biktima batzuen mina areagotuz.

Mozio hau bezalako alde bateko ekimenak, elkarrekin landu ez badira, konfrontazioa elikatzen dute, eta gizarte zibilaren lana boikoteatu, bide batez. Bakearen alde lan

egin nahi badugu, ekin diezaiozun elkarlanetik, guztion artean, ez dezagun sentitu Benedetti poetak zioena: “en realidad somos un país tan peculiar, que quien pacifique a los pacificadores un buen pacificador será”.

Elkarbizitzaren alde lan egin nahi badugu, egin dezagun gizalegez. Ulertu dezagun gizalegezkoa dela gertuko norbait kartzelatik irteten denean poztea, eta gizalegezkoa dela benetako birgizarteratze prozesuan laguntzea. Ulertu dezagun norbait askatzen dutela ospatzea ez dela inondik eta inora ETako biktimak inolaz iraintzeko, gutxiesteko edo mespretxatzeko.

Eusko Alkartasunatik beti arbuiatu izan dugu bortizkeria oro, datorren tokitik datorrela, eta hain sutuki defendatu ditugu eskubide guztiak pertsona guztientzat. EArentzat benetako elkarbizitza eraikitzeko hain nabari eta beharrezkoa den premisa hau, funtsezko zaigu halaber bide honetan aurrera egiteko; ez da legezketasun edo zilegizketasun kontua; errespetua eta enpatiarena baizik.

ETAren oinordeko edo horrelako edozein lerdokeri deitzen diguteno gogorarazpen bat luzatu nahi diegu; EH Bildu da gaur gaurkoz biktima guztiak aitortzen dituen eta memoria osoa aldarrikatzen duen indar politiko bakarra, Euskal Herriaren bakegintzan eta elkarbizitzan urratsak ematen jarraitzen dugun bitartean. Tamalez, ezin dezakegu berdina esan Espainiako eta Frantziako gobernu zein alderdien alde.

Bilduren eraketa bera bakearen aldeko apustu argia da. Apustu horretan denok genuen asko jokoan; eta irabazi genuen. Jada 3 urte pasa dira ia ETA guztiz desagertu zenetik, Euskal Herriko zein nazioarteko jende askoren lan ixil eta beharrezkoari esker. Orain, bera gabe bizitzen ikasi behar dugu, normaltasun berriak hau ere bait dakar bere baitan. Eta normalizazio honetan, normala behar du presoak birgizarteratu nahi izateak bakegile bilakatu daitezen. Normalizazio honetan, arauak betetzeak normala behar du presoak Euskal Herriko kartzeletara gerturatzeko, zigorraren 3/4ak beteak dituztenak edo larriki gaixo daudenak askatzeko, edo oraindik batuketak egiten ez dakiten umeek ez ditzaten hainbeste kilometro batu euren motxiletan gurasoak ikusi ahal izateko.

Euskal gizarte zibilak erakusten digu zein den egin beharreko bidea; ekin diezaiozun bada. Bakoitza bere eritmorra, postura ezberdinak ulertuz, eta beti pertsona guztien eskubideak errespetatuz. Alderdioi tokatzen zaigu bakegintza, elkarbizitza eta normalizaziorantzako aurrerapauso horiek indartzea, urte luzeegitan itolarrian izan gaituen egoerara bueltatu ez gaitezten. Bakea zorrozteko garaia da; ekin diezaiozun.



ELKARRIZKETA

«Eskualdeko 25 alkatek parte hartzen dugu ospitale publiko duin baten alde»

Gaurkoan Berastegiko Alkatea eta Gipuzkoako Batzarkidea den Amaia Azkue Eizagirrekin eginiko solasaldia izango dugu

Jada urtebete pasa da pandemia garaian murgilduta gaudela eta ez du ematen egoera azkar aldatuko denik... Zu Berastegiko alkatea izanda, nola bizi izan zenuten horren berri?

la herrietako arduradun instituzional eta herritar gehientxuenon antzera pentsatzen det.

Hasiera batean, ezjakintasuna nagusi; zalantzak zein betebeharrak zegozkigun udal-gobernuari eta zein ez, zein zerbitzu mantendu eta zein ez, ezinbestekoei nola eutsi, nola mantendu egunerokotasuna zerbitzuekiko, herriko hainbat sektoreekin etengabeko harremana (ikastetxe, ostatu, etxebizitza babestu), herritarrak informatuta edukitzea, zetozen neurrien informazioa jaso eta zabalkundea egitea, udal-langileekin etengabeko harremana eta taldearen antolaketa...

Kezka asko, tentsioa, sentimendu askoren nahasmendua.

Beste alde batetik, eteko martxa egokitu behar; lan-antolaketa, seme-alaben antolaketa berrira egokitzea, etengabe etxean egotearen moldaketa..

Egoera berria ia osotasunean, eta prestatu gabeko epealdian etorria.

Gaur egun nola bizitzen ari zarete pandemia garaia?

Momentu honetan lasai gaude egia esan, egoerara egokituta esango nuke. Udal-gobernuan argi daukagu etenik ez dugula egin nahi zerbitzu zein ekintzei dagokionez, eta hauek mantentzeko lanean jarraitzen dugu dagokion neurriak betez, noski.

Kutsatu-kopuruari dagokionez, ondo gaude, ez daukagu kasurik azkenaldian eta horrek ematen du lasaitasuna, zalantzarik gabe. Udal-funtzionamendua, normaltasunean dago ia bere osotasunean eta herritarrak orohar, kanpotik jasotzen denarekin ematen dut nire iritzia, eusten ari direla egoerari. Adinekoen taldeak kezkatzen nau gehien, eurei murriztu zaizkielako batez ere pandemiaren aurretik zeukaten bizimoldea; jubilatutako elkarteak itxita, zaurgarriak izatearen eragina norberarengan, kezka asko, beldurrak... Egoera normaltzen den heinean, talde honekin lanketa berezituak egiten saiatuko gara.

Zein pausu eman dituzue herrian honi aurre egiteko?

Antolatuta ditugun ekintzak aurrera eramateko eta ditugun udal-eraikinak eta zerbitzuak martxan jarrai dezaten neurriak hartu ditugu. Garbiketari dagokionez eta erabiltzaile eta aforo kopuruari dagokionez, batez ere.

Langileekin ere egokitzapenak egin ditugu, telelana egin nahi dutenei aukera emanez.

Garbiketan jarri dugu indarra, maiztasunak gehituz eta desinfektatzaileak ezarri. Eraikinen aireztatzeak ere etengabeak dira eta aurretik aipatu dudan moduan, aforoaren mugak eta distantziak mantentzen ditugu.

Argi geratu da osasuna eta zaintza arloa ezinbesteko garrantzia hartu dutela garai hauetan. Entzuna da baita ere Tolosaldeako eskualdean Asuncion Klinikaren pribatizazioarekin daramazuen borroka eta honekin lotuta, ezaguna Tolosaldeko Alkateen Mugimendua non, osasun eremuko 31 udalerrietatik 25 herrietako alkateek osatzen dezuten.

Zure herria, Berastegi, 25 herri horien artean dago. Zein dela esango zenuke mugimendu horren helburua?

Bai, Berastegi ere mugimendu honetako parte da, ez dugu inoiz zalantzan jarri bertan egon behar dugun edo ez, zalantzarik gabe eskualde honetako herria izanik, bertako kide izan behar dugula argi izan dugu hasieratik.

Mugimendua osatzen duten herrietako eragile, arduradun, zein herritarren artean erabakitzea, zein den jaso nahi dugun osasun-arreta

Zein da horren gainean egiten ari zareten lanketa?

Mugimendua osatzen dugun 25 herrietako ordezkarien artean, batez ere talde motor edo eragile bat ari da lanean. Eurak dira lanketa egiten ari direnak, eta gainontzeko herriok informatu egiten gaituzte, kontrasteak egin.

Lanketetako bat izango da, ESI tolosaldea osatzen dugun herrietako alkate guztiak bat egitea mugimenduarekin. Bestea, eskumena duten erakundeekin eta eragile ezberdinekin lan-harremanak etengabeak izatea eta bakoitzak dagokion lanak egitea, eta ardurak betetzea.

Gaur egun, Asuntzion klinikako langileen etorkizunari buruzko lanketa ere egingo da.

Eskualdean nolako osasun-arreta nahi dugun erabaki nahi dugu: eskualdeko beharrak identifikatuta eta ez, edonola edo zerbitzuak soilik emango dituen eraikin bat eginda.

Talde eragilea edo motorra, ospitale berrira bat eraikitzeak aukerak dauden lekuen lanketa egiten ere, ari da.

Ez direla une errazak esan genezake. Bakoitzak bere burua zaindu eta elkar zaintzea garrantzitsuak bihurtu dira, gauden egoera aldrebes honetan batez ere. Baina solasaldiarekin amaitzeko...

Nola ikusten duzu zuk etorkizuna?

Etorkizunari buruz hitzegitea ez zait erraza egiten. Argi ikusten dudana da, tunel beltzaren amaiera gero eta gertuago dugula. Bukaera nolako izango den, eta ateratzeak izango duen eraginak asko kezkatzen nauela ere esan behar dut: egoera ekonomikoak, egoera psikikoak, pertsonen arteko harremanetan izango duen eragina, aisialdian izandako ohitura aldaketak...

Baina, alde positiboak ere baditu tunel beltz honen irteerak noski, eta hoiei helduko diegu dudarik gabe, kaltea eragiten digunari aurre egiteko. Txarretetik onena ateratzea dagokigu guztioi.

Amaiera data ez dut garbi ikusten. Pixkanaka joango garela uste dut normaltasun egoerara itzultzen; txertoaren eragina izango da klabea nere iritziz, hau da, kutsatu kopurua nabarmen jetsi edo deusezten denean hartuko baita neurri berriak.



IRITZI ARTIKULUA

Andoni Iriando
Gazte Abertzaleak-eko Idazkari Nagusia

Gazteok eta pandemia

Belaunaldi arteko arrakala geroz eta ikusgarriagoa da gure gizartean, gazteekiko kontratu soziala hautsia dago, beste erreferente kultural, artistiko eta sozial batzuk dauzkagu eta honi guztiari pandemia egoera batu zaio.

Kontratu soziala hautsia dagoenean esan nahi duguna da gazteok gure bizitza proiektuak garatzeko aukerarik ez dugula da: %40ko langabezia tasa, gure aurreko belaunaldia baino okerrago biziko gara, emantzipatzeko aukera eza edo oso berantiarra etab.

Talka generazionala hainbat txokotan ere ikus dezakegu: gure bizitzaren muina ez da euskal gatazka politikoa, gure erreferente kulturelek beste gauza batzuk mugitzen ditu, sare sozialen bidez harremantzen gara etab.

Pandemiak egoera hauek azalarazi eta gogortu ditu, gazteekiko kriminalizazioa handitu da, gure bizitzak etxe-lana-etxea edota etxea-ikasi-etxea eskema izatera eraman gaituzte. Baina gazteok ere lehen lerroan egon gara: premia bereziko lanetan, zaintza-sareak sortzen eta indartzen, gure eskubideak aldarrikatzen, gure osasun mentala zaintzeko lagun sareak sortzen... Jarrai dezagun lanean, jarrai dezagun aldarrikatzen gazteok gizarte honen parte izan nahi dugula eta garela, guk bizitza duinak nahi ditugulako gure herrian ondo bizitzeko.

Sonia Ezkerra aktorea
(Kiliklon ekoizpenak)

«Kultura oso beharrezkoa dugu, gure onurarako, sentipen ezkorrak babesteko»

Nola etorri zitzaizun aktore bokazioa?

Musikako Goi Mailako ikasketak bukatu ondoren, ikuskizun musikatu batean parte hartzeko aukera izan nuen. Esperientzia honetan piztu zitzaidan antzerkirako sena, eta honela Madrileran joan nintzen interpretazio ikasketak egitera.

Pandemiak guztiok eten bat sortarazi digu gure bizitzan, haurrei nola eragin die?

Alde batetik, helduek baina egokitze maila haundiagoa dute, baina bestetik aurrera begira elkarren arteko harremanei eragin diezaiekete eta erne ibili behar dugu.

Iruditzen zait, pixkanaka-pixkana, eta osotara konturatzen ez garen arren, elkarrengandik aldentu eta egoera honetara ohitzen ari garela. Eta berriz ere harreman hauek berreskuratu nahi izatea zaila izan daiteke.

Kultura sektore kolpatuetako bat izan da, nola bizitu eta bizitzan ari zarete momentu zail hauek?

Hasieran konfinatu ginenean hamaika emozio sentitu genituen; harridura, beldurra, ezjakintasuna,



urduritasuna,... ekonomikoki zulo haundi bat utzi digu. Etxeratuta geundenean egin behar genituen emanaldi guztiak bertan behera geratu baitziren. Gainera emanaldi hauetatik, ez da bat ere berreskuratu, ondoren egin ditugun emanaldiak berriak izan baitira.

Badirudi, apurka-apurka berriz ere errutinara itzultzen ari garela, baina oraindik lehengo programaziotik urrun gaude.

Etorkizunera begira, pandemiaren egoera kontutan izanik, nola ikusten duzu kulturaren etorkizuna? Zer eskatuko zenuke?

Ilun ikusten dut, nahiz eta onartu behar dudana, kulturaren barruan, haurrei zuzendutako emanaldiek egoera pribilegiatua dutela, beste batzuekin alderatuta gehiago programatzen delako haurrentzako. 2008ko krisialdia bizitu genuenean ere kulturak jasan zituen murrizketa handienak, eta orain berdina gertatzen ari da. Baina argi dago kultura oso beharrezkoa dugula, gure onurarako, sentipen ezkorrek baztertzeko eta arlo ekonomikoan adar askori eragiten diolako.